

Mugaren bestaldea

Iban Ruiz de Gauna

‘Heldu gara, dagoeneko’, esan zuen eta haren azal leunak nirea osorik hartu zuen azken aldiz. Burua behera okertu zuen azkar batean, kopetari zerion iluntasuna nire begietatik ezkutatu nahian. Hodeitzarrak gure gaina betetzen hasiak ziren, ekaitz basatien aurretiko ohiko haize hotza eta urduritasuna hedatuz guztion artera.

Hara honako ibiliak, lurrean danbor hots goibelak nola, ordura arteko isiltasun goxoa urratzen hasi ziren bortizki. Burrunba ezarian-ezarian lekutu zen; apur bat lehenago hartua genuen eremua uzkuratzen hasi zen, eta ezinezkoa bihurtu zen geldirik egotea; gure gorputzek uhin biziak osatu zituzten eta alderik alde mugitzen hasi ginen, kemenez, apenas lurra ukiturik, aurrera etengabea, arnasestuka, nor bere barnera bildurik.

Orduan, taldearen aztoramena piztuz, oharkabea begi-zuri bat hurbiltzen hasi zen gugana. Mugara heldu aurretik behin eta berriro ohartarazi ziguten begi-zuriak agertu orduko, ahalik eta azkarren aurrera egiteko, bukaera bailitzateke, osterantzean, haiek gu atzeman ez gero. Indarrez bultzaka aritu nintzen, baina ez zegoen ezer mugitzerik gorputz astun uholde hartan. Begi-zuria nigana zetorren zuzenean; hankak astindu nituen adore handiz, haren irria ikusi nuen arte, niri heldu baino une bat lehenago. Arrastaka eramanez nahi ninduen, baina ez nuen amore eman.

Trumoi hotsek eztanda egin zuten, eta euria kolpeka botatzen hasi zuen. Ezustez baliatu nintzen, eta arbaso guztiek nigan ereindako kemenari helduta, inoiz baino indartsuago ekin nion borrokari. Azkenean, hanka askatzea lortu nuen eta arrapaladan aldendu nintzen, begi-zuriaren atzaparrak atzean uzten nituelarik.

Biziberritua, odola bor-bor, saldoaren itzaletan sartu eta bestaldera igarotzea erdietsi nuen.

Euria gogor ari zuen; zerua haserre bizian erditik zabaltzen zen suzko argiak gugana jaurtiz. Blai geunden, urez gainezka, zeruko jainkoen madarikazio baten azpian bezala. Hotzikarak nituen, eta, dar-dar batean nengoen, hotz hezeak gorputz osoa hartu zidalarik. Aurrera eman nituen urrats batzuk babesen bat noiz agertuko zain. Hura zen promes egin ziguten lurraldea. Bidaia nekagarri eta arriskuz beterikoa bukaeratik hurbil zegoen.

Orduan, atertzen hasi zuen, eta baretasuna usaintzen hasi nintzen aspaldian egin ez bezala. Behin egoera lasaituta, hark adierazi zidan bezala, bere bila hasi nintzen. Baina haren aztarnarik ez. Ezin nintzen begi-zuriek menderatzen zuten aldera itzuli, arriskutsuegia baitzen, eta noraezean aritu nintzen beldurrak jota hura topatzen ahalegintzen.

Egunak aurrera egin zuen, eta gaua heldu zen. Besteengana hurreratu nintzen; halakorik gertatuz gero, hori egiteko agindu baitziguten bidaiari zehar.

Berriz ere burrunba hasi zen, orain lehen baino goibelago, danbor batzuen harrabotsa zegoeneko entzuterik ez genuelarik.

Burua ezin altxaturik, hankak mugitzeari ekin nion, bata bestearen atzetik, indarge, burumakur, aspaldian lurrean eginiko oinatzak nireaz betez. Eredu izugarri hura atzean uzten hasiak ginen, eta horrekin batera hura berriro ikusteko aukera ere bai.

Aurrera egin nuen, aurrera; ez nuen, ordea, burua atzera biratu, hala agindu baitzidan, inoiz bestaldera igarotzea lortzerik baldin banuen.